

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZKOITIKO UDALA

Iragarkia

Jendaurreko informaziorako legezko epea igaro ondoren eta erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez, Azkoitian euskara ikasteko eta UEUren eta EHUren udal ikastaroetara joateko dirulaguntzak emateko oinarrien aldaketa behin betikoz onartu da, ondoko testuaren arabera:

EUSKARA ZERBITZUA

Azkoitian euskara ikasteko eta UEUren eta EHUren uda ikastaroetara joateko dirulaguntzak emateko oinarriak.

1. artikulua. Xedea.

Oinarri hauen xedea da Azkoitian euskara ikasteko eta UEUren eta EHUren uda ikastaroetara joateko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzea.

2. artikulua. Irizpide orokorrak.

Dirulaguntzen helburua da irabazi asmorik gabeko ekintzak bultzatzea. Diru-laguntza borondatezkoa eta behin-behinekoa da. Berau emateak ez dio Udalari inolako derrigortasunik ekarriko hurrengo deialdiei begira.

3. artikulua. Bete beharreko baldintzak.

Euskara ikasteko:

– Azkoitian erroldatuta egotea, gutxienez, ikastaroak irauten duen bitartean.

– 16 urte beteta izatea.

– Euskaltegian edo euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuan matrikulatuta izatea. Ikastaroak ere, HABEK homologatutakoak izatea.

– Diruz lagunduko dira aurrez aurreko ikastaroak, autoikaskuntza ikastaroak eta online ikastaroak.

– Ikastaroan gutxienez % 85eko asistentzia izatea.

– Ikastaroa gainditzea.

– HABEren deialdian dirulaguntza eskatu izana (<https://www.habe.euskadi.eus>).

Ondorengo baldintzak betez gero, matrikularen % 80 ordaintzeko erraztasunak eskatu ahal izango ditu ikasleak:

– Langabetuen, erretiratuen, pentsiodunen, ikasleen, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) kobratzen dutenen, edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren (GLL) bat jasotzen dutenen kasuan.

– AOA0, A1A0, A1A1 edo A2A1 mailako ikasleek; Azkoitiko Udalak ikasle horiek lehenetsiko ditu euskararen ezagupenik ez dutelako eta helburua delako herritar horiek euskara ulertzeko

AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Anuncio

Habiendo finalizado el plazo de información pública de la modificación de las bases reguladoras de subvenciones en Azkoitia para aprender euskera y participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV sin que se haya presentado reclamación alguna, se considera aprobado definitivamente según el siguiente texto:

SERVICIO DE EUSKERA

Bases reguladoras de subvenciones en Azkoitia para aprender euskera y participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV.

Artículo 1. Objeto.

Las presentes bases tienen por objeto regular las condiciones para la concesión de subvenciones en Azkoitia destinadas a aprender euskera y participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV.

Artículo 2. Criterios Generales.

El objeto de la concesión de subvenciones es promover actividades sin ánimo de lucro. La subvención tiene carácter voluntario y eventual y su concesión no implica al Ayuntamiento ninguna obligatoriedad para la concesión de subvención en próximas convocatorias.

Artículo 3. Requisitos.

Para aprender euskera:

– Ser una persona empadronada en Azkoitia al menos durante el periodo de duración del curso.

– Haber cumplido los 16 años.

– Haber realizado la matrícula en un euskaltegi o centro homologado de autoaprendizaje de euskera. Los cursos también deberán estar homologados por HABE.

– Se subvencionarán los cursos presenciales, cursos de autoaprendizaje y cursos online.

– Asistencia mínima del 85 % en el curso.

– Aprobar el curso.

– Haber solicitado subvención en la convocatoria de HABE (<https://www.habe.euskadi.eus>).

El alumnado que cumpla los siguientes requisitos podrá solicitar facilidades de pago del 80 % de la matrícula:

– Las personas desempleadas, jubiladas, pensionistas, estudiantes, las que perciban la Renta de Garantía de Ingresos (RGI), o alguna Ayuda de Emergencia Social (AES).

– Los alumnos y las alumnas de los niveles A0A0, A1A0, A1A1 o A2A1; el Ayuntamiento de Azkoitia priorizará dicho alumnado por no tener conocimientos de euskera y con el objetivo de que

gaitasuna ahal denik eta azkarren eskuratzea. Beraz, helburua da aipatutako mailetako ikasleek trebetasun hartzaileetan (irakurmena eta entzumena) A2 maila lortzea.

Matrikula ordaintzeko erraztasunak eskatuko dituzten ikasleek kasuan ikastaroaren ordainketa honela egin ahalko da:

– Matrikularen % 80 aurreratuko zaio dirulaguntza eskatzaileari, eta horrek baimena emango dio Udalari endosu bidez dirulaguntza hori zuzenean euskaltegiari ordaintzeko. Ordainketa egiteko era hau aukeratu da dirulaguntza eskatu den helburu horretarako erabiliko dela ziurtatzeko.

– Matrikularen gainontzeko % 20a ikasleak ordaindu beharko du, eta ikasturte amaieran Udalak itzuliko dio, baldin eta 3. artikuluko honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Ikasturte hasieran beka eskatu bai, baina, 3. artikuluko honetan ezarritako baldintzak bete ez dutenei Udalak aurreratutako matrikularen % 80 itzultzeko eskatuko die. Diru-itzulketa irailaren 30a baino lehen egin beharko da, edo ezingo dute hurrengo bi ikasturteetan bekarik eskatu.

Udalak aurreratutako diru-kopurua itzuliz gero, hurrengo bi urterako ezarritako beka eskatzeko debekua indargabetuko da.

UEUren eta EHUren uda ikastaroetarako:

- Azkoitian erroldatuta egotea.
- Ikastaroa euskaraz izatea.
- % 100eko asistentzia izatea.

4. artikulua. Eskatzaileak.

Dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte euskara ikasiko duten eta/edo UEUren eta EHUren uda ikastaroetarako joango diren pertsona fisikoek.

5. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Euskara ikasteko diru-laguntzak:

- Matrikularen % 100a izango da.
- Aurrez aurreko ikastaroetan dirulaguntza ez da 700,00 eurotik gorakoa izango.
- Autoikaskuntza ikastaroetan eta online ikastaroetan 950,00 euro izango da dirulaguntzaren muga.
- Barnetegiko ikastaroetan matrikula, jatordu eta egoitza gastuak orainduko dira, betiere 1.300,00 euroko mugarekin.

– Urtero eskatzaileko gehieneko laguntza 1.920,00 eurokoa izango da.

UEUren eta EHUren uda ikastaroetako:

Matrikularen, eta ez egonaldiaren, kostuaren % 75a ordainduko du Udalak ikasle, langabetu, erretiratu nahiz pentsiodunei, eta % 25a lanean ari direnei. Nolanahi ere dirulaguntza ez da 150,00 eurotik gorakoa izango.

Laguntzetarako aurreikusitako aurrekontua goian adierazitako gehieneko laguntzak emateko bestekoa ez balitz, eskari guztien artean proportzioan banatuko da.

6. artikulua. Eskaren aurkezpena.

Interesatuak Oinarri Orokorretan arautzen den eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:

estos ciudadanos y ciudadanas adquieran la capacidad de comprender el euskera lo más rápidamente posible. Por lo tanto, el objetivo es que el alumnado de los niveles citados alcance el nivel A2 en las destrezas receptivas (comprensión lectora y auditiva).

En caso de solicitar facilidades para el abono de la matrícula, el pago del curso se realizará de la siguiente manera:

– Se adelantará el % 80 de la matrícula a la persona solicitante de la subvención, y dicha persona autorizará al Ayuntamiento a abonar dicha subvención directamente al euskaltegi mediante endoso. Se ha optado por esta forma de pago para asegurar que la subvención se destina al objetivo para el que ha sido solicitada.

– El 20 % restante de la matrícula lo deberá abonar la persona matriculada, y al finalizar el curso el Ayuntamiento le devolverá dicho importe, siempre que cumpla los requisitos establecidos en este artículo 3.

El Ayuntamiento solicitará la devolución del 80 % de la matrícula a quienes hayan solicitado la beca al principio de curso pero no hayan cumplido con los requisitos establecidos en este artículo 3. La devolución deberá realizarse antes del 30 de septiembre, en caso contrario, no podrán solicitar beca durante los dos próximos años.

En caso de proceder a la devolución requerida por el Ayuntamiento, se anulará la prohibición de solicitud de beca impuesta para los siguientes dos años.

Para participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV:

- Ser una persona empadronada en Azkoitia.
- Asistir a un curso en euskera.
- Asistir al 100 % de las clases.

Artículo 4. Solicitantes.

Podrán solicitar las subvenciones las personas físicas para aprender euskera y/o participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV.

Artículo 5. Cuantía de las subvenciones.

Subvenciones para aprender euskera:

- El 100 % de la matrícula.
- En los cursos presenciales la subvención no será superior a 700,00 euros.
- En los cursos de autoaprendizaje y cursos online el límite de la subvención será de 950,00 euros.

– En los cursos impartidos en el barnetegí se pagará la matrícula, la manutención y la estancia, con un límite de 1.300,00 euros.

– La cuantía anual máxima por solicitante será de 1.920,00 euros.

Subvenciones para participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV:

El Ayuntamiento abonará el 75 % del coste del curso, a estudiantes, personas desempleadas, jubiladas o pensionistas, no se subvencionarán gastos de residencia. En el caso de trabajadoras y trabajadores recibirán el 25 % del coste. No obstante, dicha subvención no será superior a 150,00 euros.

En el caso de que la consignación presupuestaria prevista para estas ayudas no fuese suficiente para responder a las ayudas máximas arriba señaladas, se distribuirá proporcionalmente entre todas las solicitudes.

Artículo 6. Presentación de solicitudes.

Las personas interesadas junto con el impreso de solicitud regulado en las Bases Generales deberán presentar la documentación indicada a continuación:

a) Euskara ikasteko:

- Matrikularen ordainketa agiria edo endosua.
- Euskaltegiak ikastaroa amaitutakoan emandako ziurtagiria. Bertan honako informazioa jaso behar da: ikasleak izandako asistentzia, ordaindutako matrikula, hasierako eta bukarako maila, ikaslea HABEren azterketara aurkeztu den ala ez eta, baiezkoan, izandako emaitza jasoko da.
- Asistentzia baldintza halaberrez ala ezustekoen ondorioz, betetzerik ez duen eskatzaileak egoera hori kanpoko agiri ofizialen bidez frogatu eta zuritu ahal izango du.
- Langabeek, ikastaroa hasi dutenean langabezian zeudela ziurtatuko duen Lanbideko ziurtagiria edo Gizarte Segurantzako bizitza-laboralaren txostena.
- Erretiratuek edo pentsiodunek, ikastaroa hasi dutenean egoera horretan zeudela ziurtatzen duen Gizarte Segurantzako agiria.
- Ikasleek, ikastaroa hasi dutenean egoera horretan zeudela ziurtatzen duen agiria.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzaileak, Lanbideko emandako ziurtagiria, ikastaroa hasi dutenean egoera horretan zeudela adieraziko duena.
- Gizarte Larrialdietarako Laguntza (GLL) jasotzaileak, markatu matrikula-inprimakian berariaz gaitutako laukia, Udalak Gizarte Zerbitzuetan kontsulta egiteko baimena emateko.
- AOA0, A1A0, A1A1 edo A2A1 mailako ikasleek: euskaltegiaren agiria, zein urratsetan matrikulatu diren azalduko duena.

b) UEUren eta EHUren uda ikastaroetarako:

- Matrikularen ordainketa agiria.
- Ikasle, langabetu, erretiratu edo pentsioduna izatea ziurtatzen duen agiria.
- Ikastaroa egin izanaren agiria. Bertan asistentzia adieraziko da.

7. artikulua. Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak.

Azkoitiko Udaleko Dirulaguntza Oinarri Orokorretan eta oinarri espezifiko hauetan dirulaguntza eskatzeko ezarritako bete beharreko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiek jasoko dute laguntza.

8. artikulua. Ebaluazioa.

Euskara teknikariak aurkeztutako eskaerak ebaluatuko ditu eta dirulaguntzen zenbatekoak erabakiko ditu. Ondoren, behin betiko erabakiaren txostena egingo du. Eskaerak jasotzeko azken egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean, proposamena ebazteko ahalmena duen udal organoari, edo honek eskuordetutakoari, emango zaio honek aztertu, onartu eta informa dezan Euskara batzordea.

9. artikulua. Dirulaguntzen ordainketa.

Dirulaguntzak kurtso bukaeran emango dira, baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu eta betiere, gastua egin eta frogatu ondoren, salbu eta langabetuen, erretiratuen, pentsiodunen, ikasleen, Dirusarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) kobratzen dutenen, Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren (GLL) bat jasotzen dutenen, edo AOA0, A1A0, A1A1 edo A2A1 mailako ikasleen kasuan endosu bidezko dirulaguntza eskatu badute.

a) Para aprender euskera:

- Documento justificativo de pago o endoso de la matrícula.
- Certificado emitido por el euskaltegi de fecha posterior a la finalización del curso, que acredite el porcentaje de asistencia, la matrícula abonada, el nivel al inicio y al final del curso, si la alumna o el alumno se ha presentado o no al examen de HABE y, en caso afirmativo, el resultado obtenido.
- La persona solicitante que no puede cumplir el requisito de asistencia debido a imprevistos y fatalidades podrá probar y justificar esa situación mediante documentos oficiales externos.
- Los desempleados y las desempleadas deberán presentar certificado de Lanbide o informe de vida laboral de la Seguridad Social que justifique que al comenzar el curso se encontraban en dicha situación.
- Las personas jubiladas o pensionistas deberán presentar certificado de la Seguridad Social que justifique que al comenzar el curso se encontraban en dicha situación.
- Los y las estudiantes documento justificativo que acredite la condición de estudiante al comenzar el curso.
- Quienes perciban la Renta de Garantía de Ingresos (RGI), deberán presentar certificado de Lanbide que justifique que al comienzo del curso se encontraban en dicha situación.
- Cualquiera que perciba alguna Ayuda de Emergencia Social (AES), deberá marcar el cuadro habilitado específicamente en el impreso de la matrícula, para autorizar al Ayuntamiento a consultar dicho aspecto en los Servicios Sociales.
- El alumnado de los niveles AOA0, A1A0, A1A1 o A2A1: documento del euskaltegi en el que se refleje el nivel en el que se han matriculado.

b) Para participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV:

- Documento justificativo de pago de la matrícula.
- Documento justificativo que acredite la condición de estudiante, persona desempleada, jubilada o pensionista.
- Documento que acredite la participación en uno de dichos cursos, en el que se haga referencia expresa a la asistencia.

Artículo 7. Criterios para la adjudicación de las subvenciones.

Recibirán subvención todas las personas solicitantes que cumplan los requisitos establecidos para obtener la misma, determinados en las Bases Generales de Subvenciones y en estas bases específicas del Ayuntamiento de Azkoitia.

Artículo 8. Evaluación.

La técnico de euskera evaluará las solicitudes presentadas y establecerá la cuantía de las subvenciones. A continuación, redactará el informe correspondiente a la resolución definitiva. A partir del día siguiente del fin del plazo para la presentación de instancias y en el plazo de un mes, se presentará la propuesta al órgano municipal competente o éste a su delegado o delegada, para su posterior análisis y aprobación e informará a la Comisión Informativa de Euskera.

Artículo 9. Abono de las subvenciones.

Las subvenciones se abonarán al término del curso, con la justificación del cumplimiento de todos los requisitos y previa realización y acreditación del gasto; excepto si se ha solicitado mediante endoso, en el caso de las personas desempleadas, jubiladas, pensionistas, estudiantes, quienes perciben la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) o alguna Ayuda de Emergencia Social (AES), o del alumnado de los niveles AOA0, A1A0, A1A1 o A2A1.

10. artikulua. Osagarritasuna.

Emango den dirulaguntza osagarria izango da xede berarekin jaso daitekeen beste edozeinekin, baldin eta gainfinantziatorik ez badago laguntzen den xedearen guztirako kostuan. Horrelakoetan dagozkion kenketak egingo dira, aldea ez ordainduz edo dagozkion kopurua itzultzeko eskatuz.

Azkoitiko Udalak eskubidea izango du eskatzaileak emandako edozein datu beste administrazio publiko batzuekin erkatze-ko, eta beti deialdi honen xedeko gaiaren barruan.

Ikasturtean HABEren mailaren bat edo HABEren egiaztatze-proben bidez tituluren bat egiaztatzen duten ikasleek HABEk euskara-ikasleentzako egingo duen urteko dirulaguntza deialdian derrigorrez parte hartu beharko dute. Dirulaguntza hori ez eskatzeak automatikoki Azkoitiko Udalaren dirulaguntza jasotzeko eskubidea ukatzea dakar. Azkoitiko Udalaren dirulaguntza HABEk emandakoaren osagarria izango da, baldin eta gainfinantziatorik ez badago laguntzen den xedearen guztirako kostuan.

Azkoitia, 2022ko uztailaren 20a.—Javier Zubizarreta Zubizarreta, alkatea. (4921)

Artículo 10. Complementariedad.

La subvención que se conceda será complementaria con cualquier otra que pudiera recibirse para el mismo fin, siempre que no exista sobrefinanciación del coste total del objeto para el que se concede. En estos casos se efectuarán las correspondientes deducciones, no se abonará la diferencia o se reclamará la devolución de la cantidad correspondiente.

El Ayuntamiento de Azkoitia se reserva el derecho de cotejar cualquier dato facilitado por la persona solicitante con otras administraciones públicas, siempre dentro de la materia objeto de esta convocatoria.

Los alumnos y alumnas que acrediten algún nivel de HABE o título mediante las pruebas de acreditación de HABE durante el curso académico, deberán obligatoriamente participar en la convocatoria anual de subvenciones al alumnado de euskera de HABE. No solicitar dicha subvención conlleva automáticamente la denegación del derecho a obtener subvención del Ayuntamiento de Azkoitia. La subvención del Ayuntamiento de Azkoitia será complementaria a la que conceda HABE, siempre que no exista sobrefinanciación del coste total del objeto para el que se concede.

Azkoitia, a 20 de julio de 2022.—El alcalde, Javier Zubizarreta Zubizarreta. (4921)